



EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2023-2024 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola-egutegiak, 2023-2024 ikasturtean, ondoko arauari jarraituko die:

1.- Ikastetxe publikoetako irakasle guztiak ikastetxera irailaren 1ean sartuko dira, 2023-2024 ikasturteko hasieraren jarduerak egiteko. Irakas-jarduerak ezingo dira 2023ko irailaren 7a baino lehen hasi. Lehenengo irakas-eguna 2023-2024 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabili ahal izango da.

Beranduen jota ere, ekainaren 21ean bukatuko dira 2023-2024 ikasturtearen irakas-jarduerak, eta egun horretatik ekainaren 28ra bitarte ondoko lanak burutuko dira: ikasturtea aztertu eta ebaluatzeko berariazko lanak, programazioak, urteko memoria, eta egin beharreko administrazio ekintzak. Uztailaren ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kideek euren karguen zereginak bete beharko dituzte. Hilabete horretan eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

2.- 2008ko martxoaren 10eko Hezkuntza, Unibertstitate eta Ikerketa Sailburuaren Aginduak ezartzen duenez, ikasleagoak 875 irakastordu eta 175 egun jasoko dituzte gutxienez.

Irailan eta ekainean arratsaldeko saioa kendu ahal izango da, goizeko saioa, gehienez, lau orduz luzatuz. Gauza bera egin daiteke Gabonetako, Aste Santuko eta Ihauteriko oporraldien aurreko klase-egunetan, gehienez bi arratsalde ikasturte osoan. Dena den, irakasleak asteko 30 orduz egongo dira ikastetxean.

Aipatutako egunetan izan ezik, ikasturtean zehar goizez eta arratsaldez emango dira eskolak; baina ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak botoen gehiengo soilez onartu ahal izango du asteko arratsalde batean klaseak kentzea, arratsalde horretan irakasleriaren prestakuntzarako jarduerak egiteko. Aldaketa horrek ez du inola ere ikasleen asteko ordutegia murriztuko. Ordutegiaren beste edozein aldaketa egiteko, Ordezkaritza Organo Gorenak proposamen arrazoitua eta onartua aurkeztu beharko du lurralde-ikuskaritzan, eta honek dagokion txostena egingo dio lurralde-ordezkaritari. Txosten hori aztertu ondoren, lurralde-ordezkariek, egokitzat jotzen badu, oniritzia emango dio proposamenari.

Ordutegiak ondorengo baldintzak ere bete behar ditu:

a) Arratsaldea: 2 eskola-saio, guztira gutxienez 90 minutuko iraupenarekin.





b) Goizeko eta arratsaldeko jardunaldien artean gutxienez ordu 1 eta 30 minutuko atsedena egon behar da.

3. Ebazpen honetan aipatzen diren ikastetxe guztietako eskola-egutegietan ikasleei ikasturte berriaren aurkezpena egiteko erabiliko den eguna eskola-eguntzat hartu ahal izango da.

4.- Ezinbesteko kasuren batengatik eskola ordu kopurua murriztuz gero, egutegia egokitu egingo da, ezarritako eskola orduak eta egunak ematea lortzeko, beti ere langileen lan eskubideak errespetatuz.

Egutegia egokitu behar izanez gero, hasierako prozedura –egutegia finkatzeko erabilitakoa- bera erabiliko da, eta hori ez badu OOGak egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eskatuko du egutegia egoki dezaten. Eskaera horri erantzun ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egokituko du egutegia eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

5- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere ezin izango da jaiegun hauetakoren bat eskola-eguntzat bezala hartu.

Ikastetxeek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute maila jakin bateko zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Halaber, nahi izanez gero, ikastetxean irakasten diren maila ezberdinen zaindarien jaieguna egun bakar batean ospatu ahal izango dute. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-eguntzat hartu.

6.- Eguberriak oporraldiak 2023ko abenduaren 23tik 2024ko urtarrilaren 7ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, azken hau barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2024ko martxoaren 28tik apirilaren 1era bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Egutegi proposamena ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.



2023ko ekainaren 1a baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo dute, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien argibideak jarraituz. Ikastetxeek aplikazio horretan ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko dute. Organo horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

Zenbait ikastetxek, garraioa edo jangela konpartitzen dituztenek, egutegi proposamen bakarra eta berdina egingo dute, inplikaturiko ikastetxe guztietako ordezkariak organo gorenek onartuta. Era berean, ikastetxe publiko integratuetan ahaleginak egingo dira asteko egutegiaren banaketak irakasle guztiak bat etor daitezen, koordinazio- eta prestakuntza-saio bateratuak egin ahal izateko.

8.- Ikastetxeren batek, finkatutako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariak egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteizen,

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izp.: Begoña Pedrosa Lobato